

noaua



Egin zaitez NOAUA!ko
bazkide eta gozatu
abantailez!

Kultur Bira, iruditan



**Udarregi,
kanpo espazioa
eraldatzen**

6. or.

KAFE GARAIA

Malen Azpiazu:

“Pandemian zehar ez dira
gazteen premiak
kontuan hartu”

begi•bistan

begi-bistan.com

INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT HAIN DIBERTIGARRIA IZAN

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com



ERRESERBATU
HEMEN

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Udarregi
IKASTOLA

UDARREGI IKASTOLAK

ORDEZKAPEN BATERAKO DEIALDIA DBH GORPUTZ HEZKUNTZA IRAKASLEA BEHAR DU

BALDINTZAK

- Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Zientzien Gradua
- DBHko Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra.
- EGA (Euskara Gaitasun Agiria), C1 edo baliokidea.

ESKAINTZAREN LANALDIA:

- %39
- 13 or.40' (8 klase zuzenak eta gainerakoak prestaketa orduak)

Interesatuak

usurbil@ikastola.eus-erg curriculumak bidali edo

Deitu: 943-361216

Curriculumak uztailaren 17ra arte jasoko dira.

ARATZ

zabaleta anaiak



32 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

“Zein berezia izan den muntaiaren eguna”

Ziortza Gazte Elkarteko kideek esker hitzak besterik ez dituzte kanpaldia muntatzen ibilitako boluntario denentzat. “Zein berezia izaten den guretzat muntaiaren eguna! Zuek gabe hau ezinezkoa da! Eskerrik asko guztioi”.

Gogora ekarri nahi dute, bide batez, “kanpaldiaren desmuntaiaren egunean ere zuen laguntza beharrezkoa izango zaigula”. Uztailaren 31n jasoko dute kanpaldia. “Parte hartzeko prest baldin bazaude, bidali ieazaguzu mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com eposta helbidera zure izen-abizenak, telefono zenbakia eta kotxea ekarri dezakezun ala ez adieraziz. Gurasoekin batera gazteak ere etor daitezke”.



“Ofizialki hasiera eman diogu... hasi da Kanpaldia 2021”. Aurtengo udan, Peñaloscintosera itzuliko dira Ziortzako gazteak.

Laburrean

Zazpi kasu uztaileko lehen bost egunetan

Buruntzaldea eskualdearen erdia eremu gorrian zen aste hasieran. Usurbil horian, 221,94ko intzidentziarekin. Uztaileko lehen bost egunetan 7 Covid-19 kasu detektatu ditu Osasun Sailak udalerrri honetan.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilteta berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

“Santuenea Elkarlanean”, sarean irakurgai

Santuenea Elkarlanean parte hartze prozesurako web orrialde bat sortu du Udalak: usurbil.eus/eu/santuenea

Udaletik aditzera eman dutenez, “bertan joango gara jartzen parte hartze prozesuaren inguruko informazioa”.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaúa.eus /// www.noaúa.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaúa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaúa.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrerria!



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Badira gure bizitzan zehar arrastoa uzten duten pertsonak, guretzat bereziak izan direnak. Izan daiteke haiekin harremanetan egon garenetan zerbaitek liluratu izan gaituelako. Edo une erabakigarrietan sostengua eman digutelako. Edo haiek egindako, idatzitako edo esandako zerbaitek aldarazi egin gaituelako. Edo harreman oso estua izan dugulako eta izugarri maitatu ditugulako. Edo eredutzat eduki ditugulako egin duten ibilbideagatik edo izan duten koherentziagatik. Edo izan daiteke pertsona batzuk negatiboki eragitea gure bizitzetan eta arrasto ilun bat utzi izana ere. Gauza bategatik edo bestegatik, markatu egin gaituzte, eta hor geratu zaizkigu barru-barruan erreferentziatzako pertsona gisa, pertsona berezi eta kuttun bezala.

Omenaldietan gorai patzen diren pertsonak horrelakoak izan ohi dira. Beren bizitzan zehar egin duten ekarpena gogoratu eta gorai patu ohi da: herrigintzan, kulturgintzan, politikagintza eta abar.

Horieta bat izan daiteke Mariaje, Udarregi ikastolako zuzendaria. Udarregi bertsoariaren idatzi-arrastoen ondoan bere arrastoa utzi duen pertsona izan da Mariaje. Irakasle ikasketak bukatu berrikan hasi omen ziren Ines eta biak Udarregin, Kalezarko eskolaurrean

Bere txikian, zein handi!!!



Udarregin, Usurbilen eta usurbildarrekin egin duen ibilbidean beti konprometitua ikusi dugu, borondate onez, irribarrez, "gustura egiten dut, gustatzen zait" esanez, afizioa pasio bihurtuz.

AINHOA AZPIROTZ

"Badira gure bizitzan zehar arrastoa uzten duten pertsonak, guretzat bereziak izan direnak, horietako bat izan daiteke Mariaje, Udarregiko zuzendaria"

ume txikienekin. 13 urte inguru etapa horretan egin ondoren, Heziketa Bereziko ikasleekin aritu zen beste hainbeste urtetan. Eta ondoren zuzendari lanak egiteko erronkari heldu zion. Eta baita eutsi ere urte hauetan guztietan. 42 urtez aritu da ikastolan gure Mariaje, "nire ekarpen xumea eginez", dio ikastolako gurasooi idatzitako agurreko gutunean. Xumea izan arren, handia, ordea!

Makina bat istorio, borroka eta oroitzen edukiko ditu kontatzeko, eta gainerakook ere ederki gogoratuko dugu Maria-

jek utzitako ondasuna. Egindako ekarpen guztiak, hartutako erabaki guztiak eta iradokitako proposamen guztiak ez ziren denek gustukoak izango, noski, baina uste dut ez duela inork ukatuko eduki duen borondate ona. Udarregin, Usurbilen eta usurbildarrekin egin duen ibilbidean beti konprometitua ikusi dugu, ordutegirik gabe lanean, "gustura egiten dut, gustatzen zait" esanez, afizioa pasio bihurtuz. Eta oraindik ere "ez adiorik" esanez.

Beti detailezale; gurasoekin, irakasleekin eta umeekin. Dementzat izan du boligrafo, arkatz, pegatina, liburuxka edo jostailutxo bat eskura bilera baten aurretik, ondoren edo bulegora bisitan joandakoan. Umeak bere koadernoetako orrietan marrazkiak egitera gonbidatu izan ditu, maitasunez eta esker onez gordez marrazki horiek denak. Bizitzak eta naturak

oparitzen dizkiguten uneak gozatzeko esanez, mezuak eta argazkiak bidaltzen artista izan da. Ohituta ez gauden sorpresazko adreitasun fina.

Antzeman izan zaizkio ikastola bateko zuzendari karguak ematen dituen zama, ardura eta nekea ere, eta halere, bere nekeak motxilan hartu eta gainerakoak animatzeko gai izan da, eta baita zaintzeko ere. Traineruko arraunlariari "arraun" esan eta ziboga emateko indarra atera du. Eta behar izan denetan, arrauna hartu du berak ere.

Ez dugu inoiz goi kargudun bati dagokion gorbata jantzita ikusi, beste estilo bat izan da berea: kolore guztietako ilea eta orrazkera alaiak eta biziak ikusi dizkiogu, eta baita sudur gorria jantzita eta moztortuta ere. Makina bat urtean aritu da inauterietan kiroldegiko sarreran denei ongi-etorria ematen umoretsu eta alai. Horrelakoa izan da gure zuzendaria, gertukoa, alai, baikorra, bizi eta umoretsua.

Pandemiak ez digu utzi behar zuen moduko omenaldirik egiten ez ikastolan ez herrian. Baina xumeki eta banaka izan arren, asmatuko ote genuen eskertzen eta berak hainbestetan egin digun keinu hori bueltatzen. Luxua geurea izan baita, bere txikian hain handi izan den bidelagun bat izatea. Eskerrik asko guztiagatik, Mariaje.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Babestu NOAUA eta gozatu abantailez!

NOAUA! Kultur Elkar-teak mende laurden bete du. Hein handi batean, bazkideen bultzadari esker iritsi gara honaino. Aurrrera egiteko ordea, bazkide gehiagoren beharra izango dugu. Babestu NOAUA eta gozatu abantailez!

Aurtengo ekainean 25 urte bete zituen NOAUA! Kultur Elkar-teak. Geroztik hona, elkar-tearen zereginak ugaldun egin dira. Aldizkaria eta web orria sustatzeaz gain, kultur ekitaldi ugari antolatzen ditugu. Aisialdian ere, gure eskaintza handituz doa: Udajolas eta Zirimara NOAUA!tik kudeatzen dira.

Bazkideen ekarpena funtsezkoa da

NOAUA! Kultur Elkar-teak Usurbilen betetzen duen funtzioa sendotzeko, bazkide berriak behar-beharrezkoak dira.

Usurbilgo albisteen eta deialdien berri emateko. Herritarrei bozgorailu bat eskaintzeko.



NOAUA!ren 25. urteurrenean, bazkideetza sustatzeko bideo bat grabatu dugu. Gure web orrian eta sare sozialetan ikus daiteke edota argazkiko QR kodea eskaneatuta. TaPuntu-k osatu du ikusentzunezkoa.

25. URTEURRENEAN

*“Aurrera egiteko,
bazkide gehiagoren
beharra izango dugu”*

Auzoak eta herriak sartzeko. Sortzaileei plaza bat eskaini

eta kultur programazio sendo bat bermatzeko.

Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko. Gaztetxoei aisialdi garairako eskaintza txukun bat ziurtatzeko.

Hori dena lortzeko, bazkideon ekarpena funtsezkoa da.

Beste 25 urtez iraun dezan

Jada bazkide zaretenok modu erraz batean lagundu dezakezue. Nola? Oraindik noauakide ez diren auzokideak, lagunak, lankideak... animatu itzazue elkarteko bazkide egitera. NOAUA!k beste 25 urtez iraun dezan.

Egin zaitez bazkide!

Zurekin batera beste 25 urtez (gutxienez) herria herritik egiten jarraitzeko, erronkan parte hartzea animatu nahi zaitugu.

Bazkide izatearen abantailak

- Zozketa askotan parte hartzeko aukera.
- Deskontua kultur jardueretako sarreretan.

■ Datorren urteko errenta aitopenean hobaria jasoko duzu.

■ Usurbildik kanpo bizi direnei aldizkaria posta arruntez bidaliko zaie.

Prezioa

- 40 euro / urtean.
- 30 urte baino gutxiago aldituz? Soilik 25 euro / urtean (30 urte betetzean, automati-

koki bazkideetza arrunta izatera pasako da).

Bazkide egiten direnen artean erosketa-bonu bat zozkatuko dugu

Abendura bitarte bazkide egiten direnen artean, 150 euroko erosketa-bonua zozkatuko dugu. Diru hori Usurbilgo komertzioetan gastatu beharko da.

Nola egin zaitezke NOAUA!ko bazkide?

Oso erraza da. Hiru aukera dituzu:

■ Bulegoan: NOAUA!ko bulegotik pasa eta inprimaki bat bete beharko duzu.

■ Telefonoz: 943 360 321 telefono zenbakira deituz.

■ Internetez: Esteka honetan noaua.eus/bazkidetu

Patri
Patri
latetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Malen Azpiazu Zubeldia: “Pandemian zehar ez dira gazteen premiak kontuan hartu”

Malen Azpiazu Ameba taldeko kantaria da. Lehen diskoa plaza-ratu dute aurten eta herriz herri ari dira kontzertuak eskaintzen. Usurbilgo Kafe Tertulia talde feministako kide ere bada. Gazte baten ikuspegitik azaldu dizkigu pandemiaren argiak eta itzalak. Horretaz gain, musikaz eta mugimendu feministaz gauza jakingarri asko kontatu dizkigu.

NOAUA! Lanean edota etxean, nola eraman duzu pandemiak ekarri duen guztia? Itxialdiak, maskararen erabilera, pertsona gutxi batzuekin bakarrik elkartu ahal izatea...

Malen Azpiazu: Hasieran denok uste genuen 15 eguneko kontua izango zela eta, une horretan, pozez hartu genuen. Juxtu azterketa garaia zen eta gauzak aurreratzeko ondo etorriko zitzaigula pentsatzen genuen. Baina luzatzen joan zen heinean, oso gogorra egin zitzaigun. Azken batean, gazte bezala, behar bat dugu harremantzeko, sozializatze... Eta hori dena goitik behera ukatu zigutenean, kolpe handia izan zen guretzat.



“Klase asko jaso genituen telematikoki baina nire kasuan azterketak ez ziren murriztu, azterketa egiteko denbora baizik. Estres gehiago eragin zigun horrek, eta ordurako estres handia genuen pilotuta”, Malenek azaldu digunez.

MALEN AZPIAZU

“Gazte bezala, behar bat dugu harremantzeko, sozializatze... Eta hori dena goitik behera ukatu zigutenean, kolpe handia izan zen guretzat”

Ikasketei dagokionez, batzuk jakin zuten egoera bide-

ratzen, baina beste batzuk ez zuten asmatu guregana iristen. Kontuan hartuta gu ere lau pareten artean ginela, etxean sartuta, gazte izateak berekin duen nahaste berraste horrekin guztiarekin... Nahikoa gogorra izan zen, egia esan. Ikasketei dagokionez, bonbardaketa hutsa izan zen nire kasuan. Eta uste dut gazte askok antzekoa sentitu zutela. Ez zela kontuan

hartu gure iritzia. Gu ere zaintza premian ginela.

Bonbardaketa hori zer izan zen, telematikoa?

Klase asko jaso genituen telematikoki baina nire kasuan azterketak ez ziren murriztu, azterketa egiteko denbora baizik. Estres gehiago eragin zigun horrek, eta ordurako estres handia genuen pilotuta.

“Gazteak oso kriminalizatuak izan gara”

NOAUA! Gazteek, Usurbilen, nola bizi izan dute pandemia garaia?

Malen Azpiazu: Gazteak oso kriminalizatuak izan gara. Foku guztien arrazoia gu ginen. Pertsona berekoi gisa definitzen zitzaigun, zaintza alde batera uzten zutenak... Aldiz, gazteak zer moduz daude? Inork ez du galdera hori egin. Lehen esan dudan moduan, sozializatze behar hori kolpetik ukatu ziguten. Hori gutxi balitz, pandemia-

ren ardura gudan erori zen. Baina kutsatze gehienak nondik zetozen? Eztabaida luze baterako eman dezake honek baina asko eta asko lan mundutik zetozen, ezta?

Lehen itxialdian sortu zen elkartasun sarean, gazte jendea zen gehiengoa. Lehenak izan ziren laguntza eskaintzen. Eta uste dut hori ez dela behar bezala baloratu.

Depresio kasuak gero eta gorago doaz eta uste dut epe laburrera begira ere eragingo

digula, baita etorkizunean ere.

Pandemiak, bere txarrean, gauza interesgarri ugari ekarri ditu: Sortuz bakardadea isolatuz zikloa arnasbide garrantzitsua izan zen lehen itxialdian. Eta uda partean, Kultur Bira jarri zen martxan.

Usurbilek kultura jarri du gauza garrantzitsuenen artean eta Sortuz bakardadea isolatuz zikloan ikusi zen jendea ze eskertuta zegoen. Kultura ez da horrenbeste baloratzen baina

horrelakoetan jabetu gara zer beharrezkoa den, eta ze bizi-emana eman dion herriari. 2021eko Kultur Biraren atarian ere ikusi zen, zein gogotsu hartzen ditugun horrelako ekimenak, ezta? Usurbilen gauzak oso ondo egin direla uste dut. Egin ezin diren gauza horiek guztiak alboratu ditugu eta egin ditzakegun gauzak bideratu ditugu. Horretaz baliatu den herri bat izan gara eta ikusi da fruituak ezin hobeak izan direla.

“Musika izan da gure arnasgunea”

NOAUA! Maddi Zuloagarekin ikusi zaitugu kantari, Ameba taldeko kide zara... Aurtengo otsailean lehen diskoa plazaratu duzue Ameba taldearekin, ‘Elikatuz’ izenekoa. Pandemiaren okerrean, sormena borborka izan duzue. Kantak sortzeko garai ona izan al da?

Malen Azpiazu: Hasiera batean eten egin zen gure proiektua, gero jarraitzeko asmotan. Baina ikusita itxialdia aurrera zihola, egoerak ez zuela hobera egiten, etxetik jarraitu genuen lanean. Sormena bizipen ezberdinak edukizetik etortzen da eta egoera horretan oso zaila zen sortzea eta baita gure arteko komunikazioa ere. Baina esan beharra dago guri positiboki eragin zigula, itxialdian beste bost kantu sortu genituelako. Motibatzen gintuen zerbaite zen. Musika gure arnasgunea izan zen.

Gauzak zer diren: orain urtebete eskaini zenuten lehen kon-



Elkarrizketa hau eta ‘Kafe garaia’ ataleko gainontzeko guztiak ere gure web orrialdean ipiniko ditugu ikusgai, noaua.eus/bereziak/kafe-garaia helbidean.

MALEN AZPIAZU

“Jaietako Bertsio Gaua lagunartean ospatzen da. Giro horretan, erraztasun handiagoarekin igotzen zara oholtza gainera. Ameba hortik sortu zen”

tzertua eta dagoeneko disko bat plazaratu duzue.

Proiektu honekin hasi ginean, ez genuen horrelako garapenik imaginatu. Ameba, dena den, forma hartzen ari den taldea da oraindik. Dena modu oso azkarrean joan da. Lehen kontzertua eskaini eta gero, ikusita zein zen panorama, Garate estudioa joan eta gure lehen diskoa grabatzeko aukera aprobetxatu genuen. Oso prozesu azkarra izan da baina, aldi berean, oso aberasgarria. Oso pozik nago.

Usurbilen kantari eta talde asko sortu dira azken boladan. Jaietako Bertsio Gauak zerikusi handia izango zuen horretan, ezta? Harrobi lana egin duela esango al zenuke?

Bertsio Gaua jendea harremantzeko toki egokia da. Askota eta asko orduan igotzen dira lehen aldiz eskenatokira. Giroa lagunartekoa denez, erraztasun handiagoarekin animatzen zara. Ameba hortik sortu zen.

Musika talde batean elkartzea edo proiektu bati ekitea oso gauza arrotza izan daiteke. Aldiz, Bertsio Gau baterako elkartzea errazagoa da. Askoz ere naturalagoa da. Gure kasuan hala izan da behintzat.

Horrez gain, kontuan hartu behar da Usurbilen daukagun baliabide eskaintza: badira entseatzeko lokalak, herrian ekimen asko egiten dira... Horrek era badu eraginik talde bat sortzeko garaian. Ikusi besterik ez dago une honetan zenbat talde dauden Usurbilen.

“Usurbilgo gazte mugimenduan ikusi zen neskek bagenuela elkartzeko behar bat”

NOAUA! Kafe Tertulia neska* gazteen taldeko kide zara. Izenak bestelakorik adieraz dezakeen arren, hausnarketarako zein ekintzarako taldea dela esan daiteke, ezta?

Malen Azpiazu: Usurbilgo gazte mugimenduaren baitan, ikusi zen neskek bagenuela elkartzeko behar bat. Feminismoa lantzetik aparte, gure artean saretu eta konfiantzazko gune bat sortzeko. Horrela sortu zen Kafe Tertulia, saretze eta indartze horren perspektibatik. Egia esan, hori izan da helburu nagusia, herriko neskek beraien artean ezagutu,

indartu eta kalera ateratzeko garaian babes hori eskaintzea.

Horrez gain, ekintza desberdinak egiten ditugu. Tailerrak, formakuntzak, dena delakoak... Gehienbat saiatzen gara guk sortutako tailerrak antolatzen, zertan kanpotik ekarri gabe. Gure sormenetik eta gure jakinduriatik. Pixkanaka uste dut indartzen ari dela taldea. Herriko neska gazteak nola dauden antolatuta eta nola dauden saretuta ikusita, babes hori sentitzen duzu eta horrek indarra eman digu. Eta indar hori Kafe Tertuliaren ekarpen bat izan dela uste dut.

Gazte Eztanda ekimenaren baitan, Buruntzaldeko Neska* Gazteek udaleku feministak antolatu dituzte. Kafe Tertulia ere horren parte da. Beraz, herri mailan ez ezik, eskualde mailan ere saretuta zaudete. Zer nolako dinamika du talde honek?

Iaz Hernani, Lasarte-Oria, Andoain eta Usurbilgo gazteak batu ginen eta eskualdean horrelako sare bat eratzea oso aberatsa izango zela ondorioztatu genuen. Horrela jaio zen Buruntzaldeko Neska* Gazteak marka. Iaz, udaleku bat antolatu nahi izan genuen bai-

na pandemiaren erruz ezin izan genuen egin eta bakoitzak bere herrian topaketa moduko bat antolatu zuen. Geroztik hona elkartzeko jarraitu dugu eta azaroaren 25eko manifestazioa adibidez, batera deitu genuen.

Une honetan udalekuarekin gabilta burubelarri. Usurbilen ospatuko da asteburu honetan (uztailaren 9tik 11ra). Helburua berbera da, Buruntzaldeko neska gazteak gure artean saretzea, informazioa trukatzeko, formakuntza jasotzea eta, noski, ondo pasatzea.

Usurbil FT-ko errifa zozketak

Albiste honi atxikitako irudietako batean duzue sarituetako bat, Iñaki Larrañaga, eskuartearen egokitu zaion saria eta sariaren jabea ondoan duela. Imanol Agirretxeren kamiseta eta baloia eskuratu baitu Usurbil F.T.-k antolatutako errifa zozketari esker.

Antolatzaileek hain zuzen eskerrak helarazi nahi dizkiote Agirretxeri zozketarako utzitako kamiseta, baloi eta botengatik. Saizar jatetxearen otordu bat, Bruño marisko saltzaileen otar bat eta Yuri Berchiche futbol jokalaria kamiseta eta baloia ere zozketatu ditu Usurbil F.T.-k.

Errifak erosi nahiz zozketarako materiala utzi dutenei eskerrak helarazi nahi dizkiote. Hemen dituzue bost sarituetatik lau, iragan astean Haranen ateratako argazkietan. Bosgarren saritua agertzea falta zen une horretan.

Sarituak

■ 1. Saria: Imanol Agirretxeren kamiseta eta baloia.



Argazkietan, saritutako hainbat herritar.

Zenbaki saritua: 5.294.

Saritua: Iñaki Larrañaga.

■ 2. Saria: Imanol Agirretxeren botak eta baloia.

Zenbaki saritua: 6.922.

Saritua: Inhar Patxe.

■ 3. Saria: Yuri Berchicheren kamiseta eta baloia.

Zenbaki saritua: 2.644.



Saritua: Oier Igarritz.

■ 4. Saria: Mariscos Bruñoren mariskada bat.

Zenbaki saritua: 7.114.

Saritua: Eli Goikoetxea.

■ 5. Saria: bi laguntzako bazkaria (menua) Saizar Jatetxean.

Zenbaki saritua: 0.795.

Udajolas abian da



Hilaren 30era arte, HH3-LH6 maila arteko ia 190 haur eta gaztetxo batuko dira Udajolasen.

Lan taldea prest, eta haurrak primeran pasatzeko gogoz. As-tehenean abiatu zen Udajolas, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak hilabete honetarako antolatu dituen udalekuak.

Hilaren 30era arte, astelehentik ostiralera HH3-LH6 maila arteko ia 190 haur eta gaztetxo ikusiko dituzue herrian gora eta behera ekintza ezberdinetan parte hartzen. Osasun krisialdia gainditua ez

dugunez, hainbat prebentzio neurri hartuta parte hartuko dute. Talde txiki eta egonkorretan, musukoeekin... eta biltzeko gune ezberdinekin. Iaz bezala, aurten ere, Kaxkoko gune ezberdinetan elkartuko dira.

Usurbil K.E.-ren bilera ostiralean

“Egoera ez da batere samurra”. Hala dio Usurbil Kirol Elkarteak NOAUA!ra helarazitako oharrak. Eskubaloi taldeen bilguneak bizi duen testuinguruaz ari dira. SOS deia plazaratu dute hedabide honi helarazi dioten oharrek. “Gure klubak zure laguntza behar du!”, dio.

Azken urteotan aipatu herriko kirol elkarteak “bere lana bukatutzat eman du”, berri eman dute. Ondorioa argia da, “zuzendaritza berria sortu beharra dago”.

Usurbil Kirol Elkarteak bizi duen egoeraz hausnartu eta zuzendaritza talde berria sortzera begira, bilera deitu dute uztailearen 9rako, arratsaldeko 19:30ean Potxoenean. Bertaratzeko gonbita luzatzen dute Usurbil K.E.-tik. “Denon laguntza beharrezkoa da; beraz, animatu eta parte hartu proiektu berri honetan. Etorkizuna dago jokoan!”.

Perikito bat agertu da Kalezarko etxe batean

Kalezarko Kultur Birako ekitaldietan plaza inguruan ibilitako perikitoa auzoko etxe batean sartu zen iragan aste hasieran eta bertan da. Inork falta badu, honako telefono zenbaki hau jarri dute eskura Kalezarko bizilagunok; 628 620 405.

Udako opor aurreko azken astekariak

Udako oporraldi aurreko azken astekariak dira honako hauek. NOAUA!ren azken argitalpena uztailearen 23an izango da. Azken ohar edo zorion agurrak hilaren 19a baino lehen helarazi beharko dira erredakzioa@noaua.eus helbidera.

Miriam Arrillagak joko ona erakutsi du Plazandreak txapelketan



Miriam Arrillagak lan bikaina egin zuen astlehenean eta nagusitasun handia erakutsi zuen jokaturiko bi partidetan.

Plazandreak ligaxkako lehen itzuliko azken partidak astlehenean jokatu ziren Zornotzako pilotalekuan. Miriam Arrillagak lan bikaina egin zuen eta nagusitasun handia erakutsi zuen jokatu zituen bi partidetan.

Plazandreak taldeka jokatzaren den txapelketa da eta Euskal Telebistak eskaintzen ditu partidak. Talde bakoitzak en-

ERAKUSTALDIA

“Hirugarren eta azken partida erabakigarrian, Miriam Arrillagak 12-6ko emaitzarekin irabazi zion Leire Garairi”

trenatzaile bat du eta pasa den astlehenean Reyes Azkoitia eta Erlantz Garciaren taldeak lehiatu ziren. Hiru norgehia-

goka jokatu ziren. Lehenean Erlantz Garciaren aginduetara ari den Amaia Aldai nagusitu zen. Bigarren eta hirugarren partidetan ordea, Reyes Azkoitia entrenatzaileak Miriam Arrillaga atera zuen kantxara. Binakakoan erakustaldi ederra eskaini zuen Arraizarekin batera. Eta hirugarren eta azken partida erabakigarrian, Miriam Arrillagak 12-6ko emaitzarekin irabazi zion Leire Garairi.

Estitxu Berasategi Eizagirrek Zuazo taldean jokatu du datorren denboraldian

Estitxu Berasategi Usurbil Kirol Elkarteko jokalaria izan da amaitu berri den denboraldian. Aurretik Ohorezko Mailan ere jokatuakoa da, Bera Beran zehatzago esanda. Datorren denboraldian lehen mailan arituko da berriro, Barakaldoko (Bizkaia) Zuazo eskubaloitaldean. “Bere talentuak maila gorenean lekua zuen! Ongi etorri!”, adierazi dio klubak hautatu berri duen Berasategiri.

Usurbil Kirol Elkartek ere sare sozialetan zabaldutako mezu baten bidez zoriandu nahi izan du Estitxu: “Zorte on datorren etapa berri honetarako”.



Elitera itzuliko da berriro jokalaria usurbildarra.

Uztailaren 17an, kantaldia Astiazaran sagardotegian

Bertsolaritza, musika eta sagardogintza lotzen dituen egitaraua aurkeztu dute Bertsozale Elkartek, Musika Bulegoak eta Sagardogileen Elkartek.

Sagardotegietako terrazak kontzertuetarako nahiz bertso-saioetarako agertoki apartak izan daitezke. Horren jakitun izanik, Gipuzkoako hainbat sagardotegitan ekitaldi ugari egingo dira uztailaren 9tik abuztuaren 6ra bitarte. Gure inguruan, bakarra egokitu da. Zubietako Astiazaran sagardotegiak datorren astebururako antolatu duen saioa:



‘Sagardotegiak Elkartzeko Gaitu’ ekimenaren parte da Astiazaran sagardotegia.

Uztailak 17 larunbata, Eneritz Furyak Astiazaranen

■ Eneritz Furyak kontzertua. Arratsaldeko 19:00etan

Zubietako Astiazaran sagardotegiko terrazan.

■ Sarrera: 15 euro. Kontzerturako sarrera, sagardo tragoa

eta pintxoak. Bi web orrialde hauetako batean egongo da erreserbak egiteko aukera: sagardoa.eus eta bertsozaleak.eus web orrialdeetan.

■ Saioak ordu eta laurdeneko iraupena izango du, eta nahi duenak afaltzen gelditzeko aukera izango du.

Sagardotegi asko zabalik izango dira udan

Euskal Herriko sagardotegien %61ak atek zabalduko ditu uda partean. “Dena, noski, protokolo zorrotz eta zehatza jarraituz, denon osasunaren mesedetan”, Sagardo Route-k aditzera eman duenez.

Kultur Birak ordezkatu zuen Santixabel jaietako egitaraua

Baztango mutil-dantzak eta Oñatiko korpus-dantzak taularatu zituzten Orbeldiko dantzariak Artzabalgo frontoian Kultur Biraren baitan. Orbeldi taldeak adin-talde asko biltzen ditu, baina igandeko saioan zaharrenek hartu zuten parte. Eguraldi zoragarriarekin, hainbat herritar hurbildu ziren Artzabalgo frontoira.

Puro Relajo talde nafarrak Mexikoko doinuak ekarri zituen Artzabalgo frontoira. Orbeldiren emanaldia amaitu bezain pronto igo ziren oholtzara mariatxiak. Mariatxien musika, Espainiako abesti ezagunak zein euskal abestiak ere jo zituzten. Eguraldi itzelarekin, giro bikaina sortu zen Artzabal inguruan.



Orbeldi eta Puro Relajo taldeekin giro bikaina sortu zen igande arratsaldean, Artzabal inguruan.

Bulego taldearekin amaitu zen Santixabel asteko Kultur Bira

Bulego taldearen kontzertuarekin agur esan zieten San-

tixabel asteko Kultur Birako ekitaldiei. Giro bikaina sortu zen Udarregi Ikastola aurreko karpan. Gogoratu, Kultur Birak

oraindik ere beste bi asteburutako jarraipena izango duela, eta sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskura daitezkeela.

Kultur Birak jarraipena izango du asteburu honetan

Uztailak 9, ostirala

■ 20:00 Ugaitz Agirreren “Non dago Amaia?” saioa eta Viafara taldea kontzertuan, Aginagako Eliza Zaharrean.
■ Sarrerak: izen ematea itxita.

Uztailak 10, larunbata:

Herri Kirolen Eguna

■ 12:00 Giza proba: herritarren arteko “desapiyua” Dema plazan. 1800 kg-ko Ur Epel harritik tiraka ariko dira 20 minutuz bi talde hauek:

1. hirukotea: Aitor Alkorta Etxeberria, Iurgi Mendiluze Zuloaga, Berdaitz Larrarte Zuloaga.

2. hirukotea: Aimar Zuloaga Segurola, Imanol Zaldúa Unanue eta Gabi Sarasola Ibarгойen.

■ Edukiera: 135 lagun.

■ Sarrerak: uztailaren 8ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

■ 18:00 Aizkolari eta harri-jasotzaileen lehia Usurbilgo frontoian.

■ Zehaztasunak: “Arratsaldeko saioan kronometroaren beharrik ez da izango. Aizkolari eta harrijasotzaile banaz osaturiko bi bikote hauek ariko dira lehia bizian. Hiru harri ezberdinekin jardungo dira harrijasotzaileak eta aizkolariak hiru froga egingo dituzte: kolpekoa, azkartasuneko eta konbinatua. Erronka ederra Ostolaza harri eskolatik datozen Udane eta Gorka Etxeberria eta Esnal anai aizkolarien artean gauzatuko dutena”.

■ Edukiera: 135 lagun.

■ Sarrerak: uztailaren 9ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

Uztailak 11, igandea

■ 20:00 Andoni Egañaren “Ne-

retik” emanaldia Santuenean.

■ Zehaztasunak: “Bere bizitzari oso loturiko egiazko gaiak jorratu ditu Andoni Egañak bertso-sorta batean, eta “Neretik” emanaldia sortu. Aspalditik zuen kezka batetik sortu du ikuskizuna Egañak: bertso-paper ugari eta onak egiten direla, baina ez direla sozializatzen. Horregatik erabaki zuen bere sorta sortu eta emanaldiak egitea, Jon Ostolaza trikitilariarekin batera”.

■ Edukiera: 67 lagun.

■ Sarrerak: uztailaren 9ra arte, usurbilkultura.eus atarian (herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

Uztailak 17, larunbata

■ 20:00 Floxbin eta Idoia Asurmendi zuzenean, Aginagako Eliza Zaharrean.

■ Zehaztasunak: “Floxbin

2013an sortutako talde usurbildarra da. Metal estiloa ardatz duten abesti indartsu eta hitz zorrotzekoak dira eurenak. Idoiaren kasua euskal eszenako berezietako bat da”.

■ Edukiera: 65 lagun.

■ Sarrerak: uztailaren 15era arte, usurbilkultura.eus atarian (herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera).

Informazio gehiagorako eta egitarau osoa:

usurbilkultura.eus

Antolatzaileak:

Kalezar, Aginaga, San Esteban, Atxegalde, Santuenea eta Usurbilgo jai batzordeak; Xauxar Txosna Batzordea; Ziortza gazte elkarte; Hitz-Aho Udarregi guraso elkarte; Usurbilgo Udala; NOAA! Kultur Elkarte.



Ostegun gauean, Amak eta Neona Udarregi Ikastola ondoko karpan aritu ziren. Giro ederra sortu zuten bi taldeek.



Aupa Strings taldeak saio ikusgarria eskaini zuen ostiralean kiroldegian.



Entzuleen erantzuna bertso-saioaren mailakoa izan zen.



Bertsio Gauan jendea kanpoan geratu zen, karpa goraino bete zelako.



Oraingo eta lehengo abesti ikonikoak eskaini zituzten Bertsio Gauan.



Ginkana oparoa izan zen. Aranerrek arrantza aritu ziren. Bizkarren kokaturiko olinpiadetan ere, ezinhobeto pasa zuten parte hartzaileek.



Puro Relajo taldeak Mexikoko doinuak ekarri zituen Artzabalgo frontoira.



Bulegoren kontzertuarekin agur esan zitzaion asteburuko Kultur Birari.

Ikasketa prozesua, ikasgelatik atarira ateratzeko eraldaketa lanean

Ikastola inguruko eremua eraldatzen ikusiko zenuten azken hilabeteotan. Udarregi ikastolako kanpo espazioa boluntario taldearen ahalegina da. Bideratzen ari diren berrikuntza lanen nondik norakoen berri eman diote aldizkari honi.

NOAUA! Eraldatzeko behar batetik abiatzen da zuen taldea?

Boluntario taldea: Ikastolan jasagarritasunari eta inklusibotasunari buruzko aurrelanketa handi bat egin zegoen 2015eko Kilometroak zela eta, dekalogo bat eta formazio bat ere egin zen Udalak lagunduta. Ikasturte honetan berpiztu da gaia. Gure proiektu pedagogikoaren barruan, kanpo espazioak barne espazioak bezain besteko garrantzia du.

Duela urte batzuk barne espazioa egokitu zenuten HH-n. Eraldaketa sakona egin zen. Kanpo espazioan nola islatuko da egitasmo bera?

Urte batzuk pasa ditugu barruko espazioaren lanketan. Barrukoa ondo antolatuta eta bideratuta, ikusten genuen kanpo espazioak ez zituela bermatzen guk esaten genituen



Patioa berregokitu dute azken hilabeteotan. "Pandemia garaian, kanpoko gune guztiak izan dira ongi etorriak".

EGOKITZAPENAK

"Barruko espazioek umeen behar eta erritmoei begira egon behar duten bezala, kanpo espazioek ere bai"

ikasleen beharrak adibidez.

Jarraikortasun falta zegoen barruko eta kanpo espazioen antolaketan.

Hori da. Barruko espazioek umeen behar eta erritmoei begira egon behar duten bezala,

kanpo espazioek ere bai. Hor hankamotz geundela ikusten geunen, kanpoko espazioa ez zela guk nahiko genukeena.

Garai bateko ikuspegitik diseinaturikoa zen.

Udarregiren inguruan eraldaketarako aukera asko ikusi dira. Berdeguneen beharra ikusten zen eta egia esan inguruan badugu. Agerialde atzean adibidez, hesia zabaltzearekin, suertatu da baratzaz gain malda ederra dagoela, zuhaitzak zintzilikatze, amakak edo

landareak jartzeko dakarren aukerarekin, aldapan gora eta behera mugikortasun aldetik ekartzen duen aberastasunarekin. Aldaketa txikiekin aldaketa handiak umeei begira.

Hobetzeko aukera badu ikastolaren kanpo eremuak.

Patioa birnaturalizatzea izan da beste arrazoi bat eta pandemiak garai honetan kanpoko gune guztiak izan dira ongi etorriak. Ikerketa ugari daude kanpo espazioan jolastearen onuraren ingurukoak.

"Ez da ikastolaren gune soila, herrikoa da"

NOAUA! Jolastu eta ikasi. Ikasturte honetan sarritan ikusi ditugu ikasle taldeak kanpo espazioan ikasten.

Boluntario taldea: Eraldatze prozesu luze bat da hau, zailak dira. Ikuspegi edo begirada batetik gatoz eta kosta egiten da guztiz aldatzea; adibidez, ikasle helduagoekin ikasgela kanpo espazioa izatea. Seguru asko egoera batzuk ez ziren emango pandemia ez bazen etorri, ez zigun gauza horietaz

konturatzeko aukera emango. Eskuhartze batzuk egin ziren patioan, porteriak kentzea asko kosta zen.

Oso barneratua dugun ikuspegi aldaketa sakona da.

Lanketa bat behar du. Ezin bestekotzat jotzen genuen, irakasle, ikasle eta gurasoen ahotsa jasotzea eraldaketa prozesuan; kanpo espazioak zertarako erabiltzen diren, zer nahi dugun... Diagnosi

bat behar da. Hainbat mailetako ikasleekin adibidez zer nahi zuten galdetegi baten bidez adierazi zuten. DBHkoek adierazi zuten, klaseak kanpoan izatea oso harrera ona izan zuela, baina gero oztopoa izan zutela zikinzeria asko izaten dutela, zaborrontzirik ez dago inguruan. Asteburuetan edo arratsaldeetan ere jendea ibiltzen da. Ez da ikastolaren gune soila, herrikoa da.

Diagnosi hori noraino garatu duzue?

Ikasturte honetan lehen hilabete luzeak pasa ditugu txosten bat idazten, bai zuzendaritzan eta udalean aurkezteko, ezin delako egin halako eskuhartzerik haien baimenik gabe. Behin proiektua idatzita, aurkeztu genien eta bere egin dute proiektu hau. Hilabeteotan nabarmentzen ez ziren aldaketak ikusten ari gara.

“Ikasleak oso gustura daude”

NOAUA! Hainbat eskuhartze egin dituzue jada.

Boluntario taldea: Gune desberdinetan eskuhartze bat egotea nahi genuen. Bai Haur Eskolako umeei begira, HH, LH eta DBHko ikastolako ikasle guztientzat. Haur Eskolako patioa goxatu da, pareta margotu da. Jolas batzuk egiteko kanaloiak jarri dira, urarekin edo pilotekin jolasteko inklinazio ezberdinekin, arbel bat adierazpenerako, belar artifiziala jarri zen, harri batzuk, enborrak... Jolas zaharrak kendu dira. Agerialdeko baratza gunean, lehen eskuhartze batean Udalak hesitu egin zuen baina ikusten genuen behealde oso toki txikia geratzen zela eta interesgarria ikusten genuen hesi hori pixka bat beherantz zabaltzea. Malda dago baina jolaserako oso interesgarria da eta hor ere espazioak asko irabazi du. Adierazpenerako, mugimendurako guneak proposatzen genituen.

Eta hilerri zaharraren bueltan egindakoa?

DBHkoentzako gune hori. Hor proposamen batzuk egin zituzten, horrekin genuen zalantza gehien. Ea posible izango zen segurtasun kontuengatik eta.



“Orioko futbol zelaiko belar artifiziala kendu egin behar zutela jakin genuen eta zati bat hona ekarri genuen”. Haur Eskolako patiorako berrerabili dute.

BOLUNTARIO TALDEA

“Oso ondo ateratzen ari zaigu guztia, handik edo hemendik jende pila bat ari da laguntzen. Haizea alde dugu”

Batez ere elkartu eta egoteko eskatzen zuten. Irakasleek ere klaseak emateko kanpo espazio eroso nahi zuten, lurtean egoten baitziren ikasturte hasieran. Gune hau proposatu zuten ikasleekin egiteko proiektu bezala eta oso interesgarria izan da. Ikasleak buru-belarri ibili dira, beraiantzako espazioak sortzen.

Berrerabilitako materialaz ari gara hein handi batean.

Espazioekin hasi baino lehena goxatu jada hasita ginen bilketan. Gauza asko lortu dugu, gehiena musutruk.

Adibide moduan, Errekatxikin botatako enborrak tartean.

Edozer ikusten genuela, taldean komentatu izan dugu. Harriak erreka batzuetatik ekarritakoak dira, egurrezko bobina handiak baliatu ditugu mahaiak egiteko. Orioko futbol zelaiko belar artifiziala kendu egin behar zutela jakin genuen eta ekarri genuen. Enborrak moztu Errekatxikin eta hantxe azaltzen ginen. Hala ibili gara, material hori eskuratu

eta txukuntzen. Oso ondo ateratzen ari zaigu guztia, handik edo hemendik jende pila bat ari da laguntzen. Haizea alde dugu.

Eraldatze prozesu batean duzue kanpo espazioa. Prozesu honek badu helmugarik?

Orain arte egindako eskuhartzeak eta prestatutako gune horiek erabiltzen hasi nahi genuke, ze espazio batez jabetzen zara erabiltzen hasten zaren heinean. Joango gara ikusten ikasleek joerak, zer egiten duten, zer ez, hau etengabeko birmoldatzea izango da. Hor dugu patioa eta ondoko malda, eskuhartze sakonagoa, profesionalen gidaritza eskatzen duena.

Hainbat aldaketa egin dituzue jada. Zer diote erabiltzaileek?

Ikasleak ikusi besterik ez dago, berehala hasten dira edozerrekin jolasean. Etxera joan eta kontatzen dituztenak halako gauzak dira, alegia benetan barruak mugitzen dizkienak dira kanpora ateratzen direnean zer ikusi duten edo zer gertatu zaien. Beraien bizipenekin konektatzen dute. Ikasleak oso gustura daude.

“Borondate eta gogo handia dago gure taldean”

NOAUA! Aurten inoiz baino gehiago erabili duzue kanpo espazioa. Zer eragin du honek ikasketa prozesuan?

Boluntario taldea: Handia. Ikerketa eta aditu askok nabarmentzen dituzte onurak, ongizatea sustatzen du. Ikasleak ikusi besterik ez dago. Naturan egoteko beharra ikusten genuen. Kezka pixka bat badugu naturarekiko lotura galtzen ari garela eta. Naturarekiko harremana asko galdu dugu. Eta inguruneak ere lasaitasuna transmititzen du,

askoz liskar gutxiago daude, jolas ez da lehiakorra.

Eraldaketa prozesu hau lotura hori berreskuratzeko modu bat izan liteke.

Bai. Horrekin batera, Ekogune-koekin baso eskolako formazioa egin dugu. Lotuta doa.

Urte askotan barne espazioa izan da erdigunea. Barruko espazioa ikasteko, kanpo espazioa aisialdirako.

Eredu hori ere jolasgaraiarena izan da. Ikasketa prozesua da

barruan eta ordu erdiko jolasgaraia berriz ere gelara. Horri buelta eman nahi diogu pixka bat. Kanpo espazioa ikasteko gune bat da baita ere. Guk ikasiko dugu beraiekin batera, ikusi baitugu guk ere asko dugula ikasteko. Oraindik lan handia dago, pixkanaka egin beharrekoa. Irakasleek ere ikusi, esperimentatu behar dugu aurrez.



Elkarrekin egin beharreko bidea izan beharko da beraz.

Ikasleekin batera ikasiko dugu. Ikastola inguruan zer aberas-

tasun dugun konturatu gara. Irakaspena denontzat da.

Inor animatuko balitz taldera zer ekarpen egin dezake?

Parte hartu nahi duenak hitzaho@udarregi.eus helbidera mezu bat bidali eta hortik aurrerako deialdien berri jakinaraziko diogu. Guk jada martxa hartu dugu. Borondate eta gogo handia dago taldean. Adin guztietako ikasleek irakasleek eta profil ezberdinetako gurasoek osatua dago.



Ordena itzazu dortokak handitik txikira (handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6). Ondoren dortoka guztien oskolak apainduko dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkiozu, bigarren handienari hexagonoak, hirugarrenari erronboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.

Handitik txikira

DOMINOAN

Osatu lauki zuriak, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.





biLATU

Zenbat limoi-erdi ote daude koadro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude, bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margotu gustuko dituzun marrazkitxoak.

Oporrak non?

Marraztu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Nor marraztuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



Sudokua

Bete itzazu sudokuaren lauki zuriak IZURDE hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

U			Z	R
	E			
I				D
	R		Z	
		R	U	
Z	E		D	I

Gerezi! garraia

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamailka dira guztira.



Euskal presoak etxeratu arte mobilizatzen segitzeko deia

Ekainaren 19az geroztik, Usurbilek ez du errepre-saliatu politikorik. Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga izan ziren aske geratu diren azken herrikideak. Egun hartan kendu zizkieten pultsera telematikoak, 12 urteko kondena osorik bete ostean. “11 urte luze, kartzelaz kartzela urrunduta, sakabanatuak, bakandu eta isolatuak, pandemiaren eraginpean... hau da, beren eskubi-deak behin eta berriz urratuak”, Sarek iragan ekainaren 25ean Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzean salatu duenez.

“Baina, gaur, berriz ere euskal preso politikoak etxera ekarri arte mobilizatzen jarraituko dugula berretsi nahi dugu”, adierazi zuen Sarek azken ostiraleko mobiliza-



47 urteetan, lehen aldiz, udalerrri honek ez du errepre-saliatu politikorik.

EKIMENAK UDAN

“Uda parterako hainbat deialdi iragarri dituzte Sarek eta Etxerat-ek”

zioan.

Uda parterako hainbat deialdi iragarri dituzte Sarek eta Etxerat-ek, eta herritarrak ekimen guztiotan parte hartzeraz gonbidatu zituzten. “Ibilian

ibilian” ekimenaren babespean egiten ari diren toki-mobilizazioak; Bake Bideak eta Bakearen Artisauak uztailearen 10ean antolatutako ibilaldia eta manifestazioa, “Le temps presse” le-mapean; uztailearen 22tik 24ra egingo den bizikleta-martxa; abuztuaren 1eko hondartze-tako mobilizazioa eta hilabete horretako hiriburu-etako mobilizazioak”.

Jakin Jardunaldirako izen ematea ixtear da

Ostiral honetan itxiko dute, UEU-k, Jakin Fundazioak eta Usurbilgo Udalak uztailearen 15 eta 16rako antolaturiko “krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundera beste biderik bada?”, UEU-ren 49. udako ikastaroen baitako Jakin Jardunaldirako izen ematea. Inskripzioak ueu.eus atarian bideratu daitezke.

Udal diru-laguntzak

Ostiral honetara arte, uztailearen 9ra arte aurkeztu daitezke euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzetarako eskabideak. Aisialdiko begirale edo zuzendari titulua eskuratzeko ikasturte honetan zehar ikastaroren bat egin dutenei nahiz hilabeteotan euskara ikasten aritu direnei zuzenduak daude laguntza deialdiok.

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

DIRU-LAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRU-LAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRU-LAGUNTZA

Informazio gehiago

943 371 951 / 943 30 42 21

enplegu@usurbil.eus
ekinean@andoain.eus

usurbil
zabalik

zabalik.usurbil.eus



Torturaren biktimen aldeko mozioa

Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 26a. 5.000 torturatu baino gehiago Euskal Herrian. “Krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erazutako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen dugu”, dio EHBilduk aurkeztu eta gehiengo osoz ekaina amaierako udalbatzarian onartu zuten mozioak.

“Gorputz polizial desberdinen eskutan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du” mozioak eta beraz, “aitortza instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzen neurriak hartu daitezzen”.

“Ez dira ikertu nahi izan”

Oposiziotik EAJ-k testu alternatiboa aurkeztu zuen, bozeramaile Josune Urkolak berri eman zuenez, Eusko Legebiltzarreko talde politiko guztiek babesturiko testua, “gu era guztietako torturen aurka gaudela” argi utzita. Bere mozioak bat egiten du aipatu nazioarteko egunarekin. “Oroitzapen horren helburua da biktima horiek gizartearen aurrean aitortzea, giza eskubideen urraketa larri horrek dakarren bidegabekeriagatik. Horrela, torturaren eta botere-abusuen biktimekiko beharrezkoa den



Gai berari buruzko bi mozio proposatu ziren. Bakarrak jaso zuen ordea udal ordezkarien gehiengoaren babesa; EHBilduk aurkeztutakoak.

PATXI SUAREZ, PSE-EE

“Gaur adostasuna lortzen ez badugu, jakin badakit etorkizun hurbilean adostasun hori lortuko dugula”

aitorpen instituzionala babesten dugu, haien sufrimenduari egia, memoria eta ordaina emateko beharrari balioa emanez, eta botere publiko demokratiko guztiei eskatzen diegu neurriak har ditzatela, etorkizunean inoiz errepikatuko ez direla bermatzeko”, dio EAJ-k aurkezturiko mozioak.

Udal gobernu taldetik alkateak jeltzaleei erantzun zenez, “kontestua falta da zuen testuan”. Zergatik, zenbat torturatu izan diren ez da aipatzen, eta testuinguru hori azalratzea ezinbestekotzat jotzen zuten. “Aitortu eta onartu, ez dutela jaso orain arte errekonozimendurik eta hori huts egitea izan dela”. Beste aldera begiratu dela tortura kasuen aurrean, eta torturei lotutako ebazpen judizial oso gutxi daudela gogoraraztearekin batera,

“Usurbilen ere baditugu, ez gutxi, tortura jasan duten herritarrrak. Ez dira ikertu nahi izan”, adierazi zuen alkateak, tristura adieraztearekin batera.

PSE-tik Patxi Suarezek torturaren biktimei babesa adierazi eta gizateriaren aurkako krimenez jo zituen, torturatuak “biktimizazio bikoitza” pairatu behar izan dutela, horrekiko atsekabea eta mespretxua adierazteaz gain. “Tortura polizialaren biktimek utzikeria jasan behar izan dute, auzitegiaren ere bai”. Egun ordea lehen urratsak ematen ari direla nabarmendu nahi izan zuen. Baita udal barruan ere. “Gaur adostasuna lortzen ez badugu, jakin badakit etorkizun hurbilean adostasun hori lortuko dugula”.

Gai berari buruzko bi mozio proposatu ziren azkenean. Bakarrak jaso zuen ordea udal ordezkarien gehiengoaren babesa; EHBilduk aurkeztutakoak hain zuzen, EAJ eta PSE abstenitu ziren arren. EAJ-k aurkezturikoak PSE-ren aldeko bozka jaso zuen. EHBildu abstenitu zen.

LGTBIQ+ egunaren harira aurkeztutako mozioa, ahobatez onartua

“Denontzako askea eta bidezkoa den Usurbil baten alde”, ekainaren 28ko LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunari begira mozioa onartu zuen aho batez udalbatzak, ekainaren 24ko osoko bilkuran.

Gure Elkarte tabernaren zerbitzua esleipen prozesuan

Santueneko Gure Elkarte tabernaren zerbitzua esleitzeko prozesua abiatu du Udalak. Uztailaren 23ra arte izango da proposamenak aurkezteko epea. Legeak hala eskatuta, eskaintzak telematikoki egin behar dira Usurbilgo Udalaren webgunean.

Prozesua tarteko, tabernak itxita egon beharko du, baina jubilatutako arduratuko dira egunero ordu 17:00etatik 20:00etara irekizteaz.

Kiroldegia eta Sutegi eraberritzeko lanak

Uda honetan Kiroldegiko harmailak konponduko ditu Udalak. Eta ikasturte berri-rako sauna berria jarri eta dantza taldearentzako lokal berria egokituko dute.

Sutegi fatxada ere egokituko da eta liburutegiko bi solairuen arteko hutsunea itxiko da: espazioa irabazi, eta isiltasun gehiago egongo da.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ZENDOIA
ENA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Jasotako ezohiko diru-sarrerekin, beste hainbat egitasmo finantzatzeko aukera du Udalak

Usurbilgo Udalak jaso dituen hainbat diru-sarrereri esker, hainbat egitasmo finantzatzeko dituztela berri eman zuen udal gobernu taldeak, ekainaren 24ko udalbatzarrean. Udal aurrekontuetan kreditu aldaketa bat txertatzeko proposamena onartu zuten gehiengo osoz.

Ezohiko diru-sarrerak izan ditu Usurbilgo Udalak; 207.000 euro guztira, udal gobernu taldetik duela bi asteko udalbatzarrean berri eman zuten. Kopuru horretatik 157.318 euro BEZaren kobraketari lotutakoa, 36.627 euro hiri lurren balioa gehitzetik eratorritakoak dira eta gainerako 13.055 euroak Covid-19aren harira, Espainiako Gobernuak Foru Aldundiari eta Aldundiaren eskutik Gipuzkoako udalerriek, tartean Usurbilek jasotako ezohiko funtsa.

Aurreikusitako bano handiagoak izan diren diru-sarrerak hauek zertara bideratuko dituzten ere aditzera eman zuen udal gobernu taldeak ekaina amaierako udalbatzarrean. Batetik, udal brigadaren aspaldiko eskaria bete nahi dute; hondeamakina berri bat erosiko dute, Oiar-do Kirolegian altueran lanak



Udal aurrekontuetan kreditu aldaketa bat txertatzeko proposamena onartu zuten gehiengo osoz. Ekainaren 24ko plenoan hartu zen erabakia.

207.000 EURO

Ezohiko diru-sarrerak izan ditu Udalak; 207.000 euro guztira. Udal brigadaren aspaldiko eskaria bete nahi du udal gobernuak; hondeamakina berri baten erosketa

egiteko igogailu bat ere bai. Harane futbol zelaiko harmailak eraikiko dituzte. Azkenik, sagardoaren kulturari lotutako ikerketa antropologiko batera bideratuko dute baita ezohiko diru-sarrerak hauen zati bat.

“Konponbide koherente eta bideragarria”

Diru partida hauekin desa-

dos agertu zen EAJ. Ez zaie nahikoa iruditzen jeltzaieei, Haraneko harmailak bideratu asmo duten kopurua, Haraneko harmailak behin behinekoak izan eta gune horretako arazo bakarra ez direla ohartarazita. Dirua hondeamakina erosteko baliatu ordez, modu eraginkorrago batean inbertitzea irudituko litzaieke, esaterako, Etxealdiako irisgarritasuna hobetzeko prozesura bideratuz gero.

Udal gobernu taldetik Haraneko harmailak eraikitzea bideraturiko 13.000 euroen harira, futbol zelaian zein arazo zegoen galdetzen zioten EHBildutik EAJ-ri. Behin betikoak eta estaliak izango direla argitu zieten udal gobernu

taldetik. Ezinbestean, eraikita dagoenaren “gainen erabakitzen dugu”. Udalbatzarrean eramandako “konponbide hau Usurbil F.T.-rekin adostua izanda”, gaineratu zuten. Futbol partidak ikustera joandakoak eroso sentitu eta ez bustitzeke “konponbide koherente eta bideragarria” dela. Hondeamakinen kasuan bezala, denon dirua modu eraginkor eta arduratsuan baliatu dutela. Egungo udal hondeamakina 27 urte ditu, hamaika lan eta ekitaldientarako baliatu dute. Herri lan gehienak baliabide propioekin egiten dituzte brigadak, “makinaria behar du” ordea, zioten udal gobernu taldetik. Eta heldu da, EHBilduren esanetan, hain erabilia den baliabidea berritzeko unea.

Hondeamakina zenbatetan eta zertarako baliatu ohi den ezagutu “eta gero egin ondorio horiek” luzatu zioten gonbita udal gobernu taldetik EAJ-ri.

Aipatu moduan, Udalak jasotako ezohiko diru-sarrerak hauekin udal aurrekontuetan kreditu aldaketa bat txertatzeko proposamena egin zuen udal gobernu taldeak ekainaren 24ko udalbatzarrean. EHBilduk eta PSE-EEk babestu zuten. EAJ aurka agertu zen.

Behemendi, Udalaren baliabide propioa aurrerantzean

Usurbilgo Udalak baliabide propio berri bat izango du aurrerantzean; Behemendi Landa Garapen Elkarteak. 1992. urtean eratutako Donostia-Bidasoako elkarteak izan zen iragan maiatzean “baliabide propio edo berezko” izendatua izan zedila eskatu ziona Usurbilgo Udalari.

Eskaera ekainaren 24ko udalbatzarrean eraman zuten, eta aho bateko babesa eman

zioten udal taldeek. Behemendi barruan dira Usurbilgoa eta beste hamabi udalerririk, Beterri-Buruntza, Donostia nahiz Oarsoaldekoak, beste zenbait erakunderekin batera. Guztira 26 kide ditu.

Elkartearen helburua nagusia da “nekazari eta abeltzainen produktuen ekoizle eta industria, nekazal-turismo arloko profesionalak eta udal erakunde arteko partaidetza

eta lankidetzak bideratzea, Donostia-Bidasoako bailarako landa garapen ekintzak gauzatzeko asmoz”.

Udalarentzat hamaika lan egindakoa da Behemendi urte guztietan: herri bideetako garbiketarako eta desbroze lanak; landa eremuko “Bidez bidez” zerbitzua; eskualdeko turismo planaren garapena; landaguneko 3. adinekoen egoeraren azterketa; urteroko nekazal

plastikoen hondakinen bilketa; Usurbilgo lur bankuko eremuen kudeaketa; Usurbilgo nekazari ekintzaileak laguntzea; artilearen bilketa koordinatzea; hainbat azoketarako beharrezko karpak uztea; landa eremuan banda zabala hedatzea; hondakinen tokiko tratamendurako ekimenak bultzatzea; baserri konpostak; udalerririk bestelako nekazal eragileekin hainbat sustapen lan...

EAJ: “Kreditu gaikuntzaren zati handiena hondeamakina berri batean gastatzea ez zaigu bidezkoa iruditzen”

E kaineke osoko plenoan udal gobernu taldeak aurkezturiko 207.000 euroko kreditu gaikuntzari ezetza eman zion EAJ-PNVk. “EHBilduk aurkeztutako proposamenaren arabera, kopuru honetatik, 171.000 euro hondeamakina berri bat erostera bideratzea defendatu zuten, hau da % 82a makina erostera, beste 13.000 euro, %6a bakarrik Harane futbol zelaiko harmailak jartzeko, eta beste 5.000 euro, %2a Oiardo kiroldegiko igogailua berritzeko”.

Jeltzaleen esanetan, hondeamakina berri bat erostera bideratzen den diru kopurua gehiegizkoa da: “horrelako inbertsio bati etekina ateratzeko ahalik eta ordu gehien lanean aritu behar du makinak, eta hori ez da Usurbilgo udalaren beharren kasua. Erabilera eraginkorragoa eta probetxugarriagoa” ematea defendatu zuten jeltzaleek. Etxealdiako irisgarritasuna hobetzeko prozesua abian jartzea, adibidez.

Haraneko harmaila

Haraneko futbol zelaian harmailak jartzeko 13.000 euro bi-



“Harane futbol zelaiko harmailen beharra bere osotasunean hartu behar da”, alderdi jeltzalearen esanetan.

ALTERNATIBAK

Diru horrekin beste egitasmo hauek bultzatzea dio EAJ-k: “Banda Zabala landa eremuetan bermatu, Etxealdiako zubia luzatu, Harane futbol zelaiko harmailak berritu eta parke zein pasealekuetan eserleku egokiak jarri”

deratzea ez dela nahikoa adierazi dute EAJko ordezkariak: “orain jarri nahi diren harmaila gutxi horiek konponbide eskasa da. Denboraldi hasieran, Covid-19ren egoera zela eta agian balio zezaketen behin behine-

ko harmaila batzuk jartzea, baina orain arazoa bere osotasunean hartu behar da, eta behin betiko eserlekuaren arazoa konpondu. Hori ez da kopuru urri honekin lortzen”.

Aurreikusitako diru gehiago jaso du Udalak

EAJkoek gogorarazi nahi dute Foru Funtzaren likidazioaren ondoren, Usurbilek iazko urrian aurreikusitakoa baino 257.318 euro gehiago jasoko zituela Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta kopuru hori bere momentuan aurtengo aurrekontuetarako aurkeztutako proposamenak martxan jartzeko erabiltzea eskatu zutela udal erregistroan aurkeztutako proposamenaren bidez.

Kaxkotik Zubietarako bidegorriari ekitea

Ildo horretan azpimarratu dute hiru proposamen 2020ko aurrekontuetan onartu zirela eta pandemiagatik bertan behera geratu zirela, hala nola, Ugaldea industrialdearen atzetik Kaxkotik Zubietarako bidegorria egitea; Etxealdia auzoko irisgarritasunari bultzada ematea, eta Bizikidetzaren Memoria lantzeko ekimenak gauzatzea. Hauekin batera beste lau proposamen berri aurkeztu zituen talde jeltzaleak 2021eko aurrekontuetan jasotzeko: Banda Zabala Landa eremuetan bermatzea, Etxealdiako zubia luzatzea, Harane futbol zelairako harmailak, eta parke eta pasealekuetan eserleku egokiak jartzeko.

Borondate politikoa

“Orotara 171.000 euroko kopurua zen sei partidetan banaturik eta 2021eko aurrekontuetan bideratu zitezkeenak horretarako borondate politikoa balego, baina lehentasuna hondeamakina erosteari eman diote eta horregatik gure ezetza kreditu gaikuntza honi” adierazi du udal taldeak.

Udarregi Ikastolak Haur Eskola kudeatzen segiko du

Udarregi Ikastolak kudeatzen segiko du Kalezarko Haur Eskola, azken plenoan gehiengo osoz hala erabaki ondoren. Haur Eskola zerbitzu-emakidatza Udarregi Ikastolari esleitzea

onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz. EHBildu eta PSE-EEren aldeko bozkek babestu zuten erabakia, EAJ-ren udal ordezkariak abstenitu egin ziren.

Usurbilgo Udalak orotaraz-

ten duenez, martxoaren 25eko udalbatzarrean “prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakidatza kontratatzekeo lizitazioa martxan jarri zen, udal

Kontratatzaile Plataforman argitaratuz”. Gerora, eskaintzak aurkezteko epea zabaldu zutenean, “lizitatzailerak bakarrik aurkeztu da: Udarregi Ikastola IKE”.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ARRANDEGIA
PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA
TELEFONO BERRIA!

EGIN ZURE ESKAERAK
WHASTAPP-ETIKI!

Usurbilgo PSE-EEK legealdiko lehen bi urteen balantzze gazi-gozoa egin du

Patxi Suarez PSE-EEKo zinegotziaren esanetan, Covid-19aren pandemiaren ondorioz oso zaila izan da azken urtea. Hala ere “EHBilduren udal gobernuari laguntzeko” ez zuela arazorik izan nabarmendu du Suarezek, herriko bizilagunei eragiten zieten eta aurrera egiteko indar politiko guztien batasuna behar zuten gai “nagusiei” dagokienez. Are gehiago, “jarrera zintzoa” izan duela gaineratu du, udal talde sozialistak bere jarrera malgutu baitzuen.



Patxi Suarez bozeramaile sozialistak Usurbilgo bizilagunen proposamenak udalari eta bestelako erakundeetara helarazteko prest dagoela berretsi nahi du.

PATXI SUAREZ, PSE-EE
PSE-EEK jarrera zintzoa izan duela dio, “udal talde sozialistak bere jarrera malgutu baitzuen”

Hasieran osoko zuzenketa aurkeztu zuen udal-gobernuaren aurrekontuen aurka; baina, gero kendu zuen. Aitzitik, argi utzi nahi izan du ez daudela ados aurrekontuak helburu politikoetarako jasotzen dituen partida ekonomikoekin. Suarezek hainbat neurri aurkeztu nahi izan zituen Covid-19ak enpresetan, saltokietan, ostalaritzan eta usurbildar familietan izan dituen ondorioak arintzeko. Udal gobernuak

ez zituen guztiak onartu. Ekinemen artean, Covid-19 Arreta Bulego bat sortzea proposatu zuen, non zailtasunak dituzten herritarrek ez ezik, merkatariek eta tokiko ostalariek ere laguntzak izapidetzeari buruzko informazioa eta aholkularitza jasotzeko aukera izan zezaten. 2021eko udal aurrekontuan pan-

demiaren ondorioei aurre egiten jarraitzeko partida ekonomiko bat proposatu zuen Suarezek, beharrezkoa den material berezia erosteko 2.000 euroko partida bat handitzea onartuz. “Sozialistok udal gobernuarekin elkarlanean aritu nahi izan dugu, eta horrek itxaropen handiak sortu zizkigun, baina, zorritzarrez, gure ekimen guztiak ezin izan ziren aurrera atera”, esan du Francisco Suarezek.

Konpromisoa oinarrizko gizarte zerbitzuekin
 Bizikidetzaren eta Memoria

Historikoaren, kulturaren eta euskararen, eta ingurumenaren aldeko neurriak ere proposatu zituen, eta hala dago jasota udal-aurrekontuan. Emakumeen kiroletarako laguntzak handitzea adostu zuen, 2020ko maila berdinei eutsiz. Diru-laguntza bat sortzea adostu zuen, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Gizarte Segurantzak babesten ez dituen tratamendu medikoak ordaintzeko. Oinarrizko gizarte zerbitzuekin konpromisoa ere hartu du Suarezek. Bere ustez, hori izan behar da: kalitatezko eguneko zentroaren zerbitzua ematea, eguneko zentrorako garraioa erraztea, tutoretzapeko etxebizitzaren programa, Buruntzaldeko gizarte- eta lan-programarekiko lankidetzatza, osasun-planaren garapena, adingabeen gatazken programa, droga-mendekotasunaren prebentzioa, larrialdien programa, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laguntzea, eta zaharren egoitzarako diru-laguntza.

Uztailearen 16an, “Mikra” kaleko ikuskizuna Zubietan

Zubietan Lantzenek antolatuta, uztailearen 16an ostirala, arratsaldeko 19:00etan Zubietako errebote plazan. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira usurbilkultura, eus atarian. “Gene-roaren eta rolaeren arteko erlazioa abiapuntutzat hartuta, deseraiki egingo dituzte norbanako gisa dauzkaten jokabideak”. Horretarako akrobazia erabiliko dute ariketa gisa.

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

Handitx txikia
 Ondena itzazu dordotek handitx txikiare (handienari 1 zenbakia emanez, eta txikiari 6). Ondoren dordotek guztien oskelak apainduko dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkizu, bigarrenari handienari hexagonoak, hirugarrenari erroboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.

DOMINOAN
 Ostu lauki zuriak, honela domino zati honek zentzua izan dezan.

BILATU
 Zentzat limai-erdi ote daude koardro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude, bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margatu gustuko dituzan marrazketoak.

11 LIMAI-ERDI DAUDE

Oporrak NON? Marraztu zure burua uharte gailu honetan eta lagun bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.

Gerezi garara
 Aurki itzazu bi mundu artean dauden objektuak. Hainbat dira gaithe.

SUDOKUA
 Bete itzazu sudokuaurren lauki zuriak IZURDE hitza osatzen duten letra-konbinazioekin (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arao bakoitzeko.

U	D	I	E	Z	R
R	Z	E	I	U	D
I	U	Z	R	D	E
E	R	D	Z	I	U
D	I	R	U	E	Z
Z	E	U	D	R	I

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,
garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastarora egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisie-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Zerramak, txerrikumeak eta poeta salgai. 607668603.

Usurbilgo kaxkoan giltzak galdu ditugu. Giltzak kartera txiki batean daude zintzilikatuta. Topatu

badituzu deitu: 618963375

Lepoko marroia duen txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaito herriari. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, biz-pahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Goardiako farmaziak

Osteguna 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 16 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK



Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Agenda uztaila

09 ostirala

- **Usurbil K.E.-ren bilera** 19:30 Potxoenean.
- **Kultur Bira:** Ugaitz Agirrerren "Non dago Amaia?" saioa eta Viafara taldearen kontzertua, 20:00etan Aginagako Eliza Zaharrean.
- **Buruntzaldeko udaleku feministak** Usurbilen.

10 larunbata

- **Kultur Bira:** 12:00 Giza proba: herritarren arteko "desapiyua" Dema plazan.
- **Kultur Bira:** 18:00 Aizkolari eta harri-jasotzaileen lehia Usurbilgo frontoian.
- **Buruntzaldeko udaleku feministak** Usurbilen.

11 igandea

- **Kultur Bira:** Andoni Egañaren "Neretik" emanaldia 20:00etan Santuenean. Sarrerak: uztailearen 9ra arte, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri.
- **Buruntzaldeko udaleku feministak** Usurbilen.

Ostiral honetan Aginagan, Viafara rock taldearen debuta

Viafara rock taldeak lehen kontzertua eskainiko du ostiral honetan Aginagako Eliza Zaharrean. Ugaitz Agirrerren *Non dago Amaia?* ikuskizunarekin borobilduko da gaua.

Kultur Biraren web orrialdean irakurri dugunez, "su txikian eta maitasun osoarekin gauzatzen ari den proiektua dugu Viafara". Zarautz eta Usurbilgo musikariek osatzen dute rock taldea: Patxi Gabilondok (baxua eta ahotsak), Aritz Zabaletak (gitarra eta ahotsak), Jon Guadixek (gitarra eta ahotsak) eta Iñaki Irazustak (bateria eta ahotsak). Ostiral honetan Aginagako Eliza Zaharrean izango dira, 20:00etatik aurrera.



Usurbil eta Zarauzko musikariek osatzen dute taldea. Argazkia: Mattin Aierbe.

Ugaitz Agirrerren bakarriketa

Viafara Kultur Biraren baitan arituko da ostiral honetan Aginagan. Ugaitz Agirrek osatuko du gaueko eskaintza. *Non dago Amaia?* ikuskizuna eskainiko du Aginagako Eliza Zaharrean.

Asteburu honetan Usurbilen, Buruntzaldeko topaketa feministak

Buruntzaldeko neska* gazteen topaketa asteburu honetan ospatuko da Usurbilen.

"Trans egoerei kontatu ez dizuetena" hizpide izango duen hitzaldia, prostituzioaren inguruko oka jolasa, Buruntzaldeko neska* gazte taldeen aurkez-

pena, ligoteo sanoari buruzko tailerra, "feminismoak nola osatzen gaituen" ahotan hartuko duen solasaldia, kontzertuak, gaubelak... Hauek eta gehiago iragarri dituzte asteburu honetarako Usurbilen.

Datozenak

Olor bakarlariarekin abiatuko da 'Laboaren Uztaila' zikloa

Jokin Azpiazu Carballo musikariaren proiektu pertsonalena da Olor izenekoak. 2017. urtean abiatu zen Chroma Bartzelonako taldeari Zarauzko Putzuzulon harrera egiteko asmoarekin, eta hortik aurrera oso erritmo motelean bada ere, aurrera egin du gaur egunera arte. Hainbat emanaldi egin ostean, laster izango du kalean lehen grabaketa, CD formatuan. Bere kontzertuarekin abiatuko da aurtengo zikloa.

- Izen ematea: uztailearen 6ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.
- Edukiera: 78 lagun.
- Oharra: giro euritsua bada, kontzertua Sutegin izango da.

Aurtengo eskaintza

Uztailak 8 osteguna:

Olor, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Uztailak 15 osteguna:

Ibon RG eta Enrique Hurtado, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Uztailak 22 osteguna:

Aire ahizpak, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

Uztailak 29 osteguna:

Garazi Navas, 22:00etan Mikel Laboa plazan.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

GERTU

**USURBILGO HERRI
MERKATARITZA,
HERRITARRAREKIKO
GERTUEN,
ZERBITZURIK ONENA
EMATEKO**

hurbilag

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Euskadi, anzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERREPUBLIKAREN
KONSTITUZIOA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Usurbilgo Udala

ZOTZ EGIN!



AUKERATU ZORTEAREN HIRUSTA ETA IRABAZI SARI SEGURU BAT!

Nola parte hartu?

1. Hurbildu zaitez ZORTEaren stand-era eta erakutsi zure Urbil APP-eko [QR kode identifikatzailea](#) eta Urbileko edozein dendako [20€tik gorako egun bereko erosketa tiket bat](#).

2. Aukeratu gehien gustatzen zaizun hirusta eta ezagutu zein den zure oparia!

Parte hartzeko ordutegia.

Astelehenetik larunbatera 11:00-14:30 eta 16:30-20:30.

*Eguneko parte-hartze bakarra pertsona bakoitzeko.

**Uztailaren 22ra arte edo izakinak agortu arte.



GAINERA, PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN CINESAREN **PACK BEREZI BAT** ZOZKETATUKO DUGU. GOZATU ZURE FAMILIA ETA LAGUNEKIN ZINEMAKO GELA ESCLUSIBO BATEZ.